

# 9.GAIA. BATASUNAREN ZUZENBIDEA ETA BARNE ZUZENBIDEAREN ARTEKO HARREMANAK

Urte luzeko prozesua izan da, hein handi batean tribunalaren jardunaren ondorioz, Luxenburgoko gorteak interpretazio teleologikoa erabili zuelako finkatzeko (garai hartan 60 hamarkadan) erkidegoaren zuzenbidearen ezaugarriak, hau da ezaugarri horiek tratuetan ezaugarri horiek ez zuten ezarri batez ere tribunalaren lanaren ondoren ezagutu zaizkio eta nolabait harreman horiek 3 printzipioetan ditu oinarri; batetik, europar zuzenbidearen autonomia, eraginkortasun zuzena eta lehentasuna edo nagusitasunaren printzipioa (prevalencia).

Gero jarraian agertuko zaigun beste afera da zuzenbide europarra ez dela bakarrik estatu kideetara zuzentzen baita herritarrengana ere, hau da, herritarrengan sortzen dituela eskubide eta betebeharrak. Dakigunez, europar zuzenbidearen jatorria egon daiteke tratuetan (jatorrizko zuzenbidea) edo europar instituzioetan (eratorritako zuzenbidea), hasieran aipatu dudan moduan, ibilbide jurisprudenzial luzeko emaitza, batez ere 60.hamarkadan hasitakoa eta dagoeneko aipatu ditugun bi sententziak gogora ekarri beharra daukagu (63-64 urtekoak). (**Van Gend & Loss; 1963**): tribunalak esan zuen erkidegoa konstituitzen zela nazioarteko ordenamendu juridikoaren adierazpen berri moduan, eta (**Costa vs Enel; 1964**) esan zuen: erkidegoarena ordenamendu juridiko propioa zela integraturik estatu kideetako sistema juridikoan.

Ebazpen oietan argudiatzeko konklusio handi horiek bere garaian izan zirenak esan zuen hasieran nazioarteko zuzenbidea izan arren, bere ezaugarriengatik hau da, eskumenen zabaltasunengatik, botere publikoetan sortzen zituzten obligazioengatik, halako gainezkatzeko moduko efektu bat gertatu izan zela, nolabait nazioarteko gainezka izan zuela erkidegoko zuzenbideak eta ez zituela bakarrik bideratzen estatu kideen arteko harremanak, horiez gain herritarren artekoak ere bideratzen zituela.

Tribunalak ere esan zuen, garai artako Europar erkidego ekonomikoaren tratatuak halako zuzenbidearen erkidegoaren karta konstituzional gisa uler zitekeela, eta hori argudiatzeko esaten zuen instituzio batzuetan ez zeudela estatu kideetako ordezkariak (batzordean, parlamentuan...) eta bestetik non estatu kideek ordezkariak duten Ministro Kontseiluan noiz gehiengo kualifikatuz bozketaz deituak diren estatu kide orok ez du ponderazio berbera, aldatzen dira estatuz estatu. Berriz bueltatzen gara Delors-en aferara nola ez dago garbi sortu den harremana, noraino doa europar zuzenbidea eta noraino barne zuzenbidea; batetik zailtasunak ditugu gauzak ulertzeko baina bestetik aukera dugu sormenari ekiteko, nola gauzak ez daude guztiz finkaturik.

Orain hasiko gara aztertzen **eraginkortasun zuzenaren printzipioa** eta **lehentasunaren printzipioa**.

- **Eraginkortasunaren zuzenaren printzipioa (aplicación directa):**  
Horrekin lotzen da erabakiekin eta printzipio horri loturik adierazi nahi dena da direla normak zeintzuk era uniformearen sortzen dituztela efektu edo ondorio berberak beren indarrean izatetik hau da, sortzen dituztela eskubide eta betebeharrak eta horiek aginte publikoen aurretik inbokatu izan daitezkeela. Eta aginte autoritate publiko oiek beharturik daude eskubide eta betebeharrak oiek bermatzera, hau da, era uniformearen estatu kide orotan europar normek (ez guztiek) baina eraginkortasun zuzena duten horiek (erregelamenduek, adibidez) sortzen dituztela beren indarrean sartu izatetik eskubide eta betebeharrak eta oiek inbokaturik izan daitezkeela aginte publikoen aurrean eta aginte publikoak behartuak izango dira horiek bermatzera, hau da, ez dagoela inongo transposiziorik norma horiek ondorio juridikoak sor ditzaten. Subjektu bakarrak estatuak dira eta ez hiritarrak eta hau jakina, igaro dira 40 urte baino + halako ezaugarriak ezagutu egin zizkietenik europar zuzenbideari, arrunt iruditzen zaigu baina garai artan ez zan batere arrunta eta erabaki horretara tribunala bere bakarrik halako dedukzio teleologikoa edo sistematikoa egin zuen halako ondorioetara ailegatzeko. Dedukzio hori loturik zegoen paradigma berri bati, hau da, sortzez nazionala ez den norma batek eskubide eta betebeharrak sor zitezkeela partikularren artean. Hau da nolabait abstraktuki konklusioa baina europar zuzenbidean maiz gertatzen denez ondorio horiek sortzen dira kasu batetik (auzi batetik) eta kasu hori izan zen Van Gend & Loos. Izan ere, hau zen, Holandako enpresa kimiko bat eta enpresa horrek auzi bat bideratu zuen holandako kontenzioso administratiboko auzitegi baterantz nola ordurako (1963) bukatua bazegoen batasun doganala erdiesteko epea (12 urteko epea jarri zuten 1958.urtean), baina Holandako gobernuak tasa berri bat ezarri zuen eta enpresa kimiko horrek inportatzen zituen osagaiak Alemaniatik eta horren abokatuak kontuak egin zituen eta galdetu egin zion auzitegiari ea posiblea ote zen holandako gobernuarentzat batasun doganalaren baitan tasa berri bat ezartzea eta auzitegi horrek dudatan egon zen eta galdera egin zion Luxenburgoko auzitegiari (kuestio prejudiziala); horren bitartez estatu kideetako auzitegiek aukera dute eta azken instantziakoak baldin badira behartuak egongo dira estatu kidearen zuzenbidearen eta batasunaren zuzenbidearen arteko auziak dudatan baldin badago eta jakina auzirako kuestio garrantzitsua izango balitz galdera egiteko eta hala gertatu zen auzi horretan, hau da, kasu horri begira holandar estatuak ez ote zuen betebeharrak bermatzeko batasunaren erkidegoaren zuzenbidearekiko hau da, ezin zuela ahalmenik edo errespetatu behar zuela erkidegoko zuzenbideak ezarritako debekua egikaritzeko. Beste era batez ikusita ez ba ote zuen partikular batek eskubidea estatu kide bati exijitzeko nazioarteko kasu artan erkidego zuzenbidetik zetozen betebeharrak exijitzera eta Luxenburgoko tribunalak baietz erantzun zuen; edozelan ere esan zuen europar norma batek eraginkortasun zuzenik onesteko ezin zitekeela modu orokorrean baieztatu, eraginkortasun zuzena onartzeko batetik Europar norma horrek izan behar zuen argi eta zehatza eta betebeharrak

modu inekibokoan ezarri eta bestetik agindua ez zuela aginte nazionaletan inongo apreziaziorik, mandatu behar zela izan baldintzarik gabekoa, hau da, norman eskubide edo egin beharrak argi eta zehatzak baliren eta mandatua baldintzarik gabekoa balitz orduan baieztatu zitekeela norma horren eraginkortasun zuzena. Bestetik, estatuak ezin zuen ez betetzeagatik zioetan babestu berari legozkien eskubide edo betebeharrak ez betetzeko, eta argiago ikusiko dugu hau zuzentarauetan, hauek behar dute transposizioa, estatu kideek behar dute batetik epe barruan zuzentarau horretatik lezokion eginbeharrak bete, ez baldin bada epean betetzen edo txarto aplikatzen baditu zuzentarauak ezin dio esan herritar bati zuzentarauean onetsitako eskubideak ez dituela, ezin du estatu kideak bere ez egiteaz baliatu gero ukatzeko zuzentarauean onesten diren eskubideak ez betetzeko. Horretarako behar da zuzentarau horrek erregelamendu bezala eraginkortasun zuzena izatea. Zuzentarau batzuei eraginkortasun zuzena onartu zaie, adibidez: Lütticke-ko epaia 57/65 eta UCI-ko epaia 36/74 eta hauen bidez auzitegiak erabaki zuen partikularren artean ere eskubide edo eginbeharrak sor zitezkeela. Gero beste epai famatu bat, Belgikan gertatutakoa Defrenne 43/75 bereizkeriarik ez onartzeko, gizon eta emakumeen artean ez soilik legetan, baita ere lanetan eta beste afera guztietan. Tribunalak esaten zuen berdin zitzaiola partikularren eta enpresen arteko lan harremana, ezin zela diskriminaziorik onartu. Europar Batasuneko Funtzionamenduzko Tratatuaren 8 eta 10. artikuluekin zuzen erlazionaturik.

Zuzentarauean eraginkortasun zuzena lortzeko behar da ezarritako epea iraungirik izan edota transposizioaren bitartez adaptazioa ez nahikoa izatea edo okerra izatea eta bestetik eta ezin bestean zuzentarauean edukia zehatza eta baldintzarik gabekoa izatea, hiru aditza horiek betetzen badira zuzentarauek ere izan dezakete eraginkortasun zuzena. Erregelamenduak beti dute eraginkortasun zuzena. Nolabait jokoan dago kooperazio leialaren printzipioa eta aplikazio uniformearen printzipioa (naziotasunagatik bereizkeriarik ez sortzeko printzipioa) estatu kide batzuetan epean eta ondo egiten bada transposizioa eta beste batean ez bada egiten edo txarto egiten bada, herrialde artako herritarrei ez badiegu onartzen norma horretako sor litekeen eskubide eta betebeharrak, herritarren artean eskubide eta betebeharrak diferenteak egongo litzateke eta horrek bereizkeriak sortuko lituzke herritarren artean. Botere publiko oro dago sometiturik dela botere zentralari lotuko administrazioak edo tokian tokiko administrazioak. Botere zentrala ezin du esan transposizioaren bereizkeria dela medio, ez duela ardurarik.

- **Lehentasunaren/nagusitasunaren printzipioa:** afera ez da guztiz argitu azken urteotan batez ere Alemanian emaniko ebazpen batzuen arabera ematen du printzipio horren esanahia nolabait dudetan jar daitekeela, printzipioz batasunaren zuzenbidearen nagusitasunak auzitegiak ezarri zuen eta bere argudioa da ezin daitekeela naziotasunarengatik bereizkeriarik egin herritarren artean eta hori ekiditeko ezin daitekeela batasunaren zuzenbidearen aplikazioa diferente izan segun eta zein

lurretan hau da estatu kide orok saihestu behar du geroztiko legediaren ondorioz batasunaren zuzenbidearen aplikazioa eraldatzea; hau da legeak ezin duela batasunaren normatiba eraldatu, estatu kideek ezin dutela bere barneko zuzenbide erabili batasunaren normatiba aldatzeko (ospe handiko epaia *Simmenthal 106/77 epaia*; ebazpen horren bidez Luxenburgo auzitegia esan zuen estatu kideko epaileek behartuta zeudela erkidegoaren zuzenbidea aplikatzera eta ezin zuela itxaron behar barneko arauaren derogaziora eta bere kabuz aplikatu behar zuela erkidegoko zuzenbidea; nolabait betebeharrak behartzen du botere publiko orori eta baita ere partikularrei). Hau teorikoki gertatzen da, praktikoki ez da guztiz horrela, eta guztiz zailagoa konstituzioa jokoan dagoenean.